

Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak
euskararen ikerketari

Nuevas aportaciones al
estudio de la lengua vasca

Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan

AMAIA ELIZALDE ESTENAGA

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan

Studies in censorship today: its application in Basque literature

AMAIA ELIZALDE ESTENAGA

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

amaia.elizalde@ehu.eus

JASOA: 2019/07/30 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/08/07 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/12/17

Argitalpen hau IT1047-16 ikerketa-taldea egiten ari den US17/10 (UPV/EHU) eta FFI2017-84342-P (MINECO) ikerketa-proiektuetan sartzen da.

LABURPENA

Hiru hamarkada igaro dira Joan Mari Torrealdaik euskal literaturaren eta zentsuraren inguruko lehen lanak argitaratu zituenetik. Orduz geroztik, zentsuraren gaineko teoriak nazioartean garapen nabarmena izan duen arren, euskal eremuan urriak izan dira zentsura-ikasketen arloko ekarpen teoriko orokorrak, bai eta euskal literaturaren esparru zehatzera egindakoak ere. Hala, zentsura-ikasketen berritze teorikorako beharra atzemaatearekin batera, ikerketa-eremu honek euskal literaturarekiko harremanean irekitzen dituen lerroak arakatzeari ekin zaio berriki. Lan honetan azpimarratuko dugu beharrezkoa dela euskal literaturaren bilakaera ulertu ahal izateko zentsuraren ikuspegi berritzailea aplikatzea eta hau memoria-ikasketekin uztartzea, literatura memoria kulturalaren parte garrantzitsua eta berezia baita.

ABSTRACT

It has been three decades since Joan Mari Torrealda published the first works on censorship and Basque literature. From then on, despite the fact that theorization about censorship has developed significantly at the international level, in the Basque field there have only been a few general contributions about censorship theory. Thus, together with the identification of the need for theoretical renewal, a tendency has recently begun that seeks the lines this area of research would open up as applied to Basque literature. Through three examples, we will highlight the need to apply an innovative view of censorship and to interlink this with memory studies in order to understand the development of Basque literature, as it constitutes an important part of our cultural memory.

Gako-hitzak: euskal literatura; zentsura-ikasketak; memoria-ikasketak.

Keywords: Basque literature; studies in censorship; memory studies.

1. Sarrera

Artikulu honek zentsura-ikasketen eremuko ekarpena egitea du helburu, euskal literaturaren esparrura aplikatuz. Azken ildo teorikoak ekartzearekin batera, zentsurari buruzko teorizazioa memoria-ikasketekin ere uztartuko dugu. Nazioartean erabiltzen diren teorizazioek zenbaitetan aipatu badute ere, literatur eremuko zentsuraren eta memoriaren intersekzioa ez dago oraindik behar bezala landuta eta, hori dela eta, artikulu honen lehen atala eskaini diegu bi ikerketa-ildoen aurkezpenari nahiz uztartze teorikoari.

Euskal ikasketen testuinguruan daukagun zentsuraren pertzepzioa oso estu lotuta egon ohi da Francoren erregimen peko zentsura instituzionalari, honen debeku eta errepresio-neurriei, bereziki. Ikusiko dugun bezala, memoria horrek baldintzatutako zentsuraren irudia ez dator guztiz bat errealitatearekin, ez 1936tik 1975era bitarte euskal eremuan zen zentsurarenarekin, ezta fenomeno zentsorearen berezko errealitate askoz konplexuagoarekin ere. Artikulu honen bigarren atalean, beraz, euskal ikasketetan gailentzen den zentsuraren ikuspegia eta marko teorikoa zabaltzeko bideak aztertuko ditugu.

Azkenik, euskal literaturaren bilakaeraren zenbait unetan arreta ipiniz, azaleratzen ahaleginduko gara zentsuraren ikuspegi berritzailearen prismak eskaintzen duen emankortasuna. Helburua ez da, inondik inora, orain arte egin den lan historiografikoa deitoratzea; are gehiago, literaturaren alderdi agerikoenean oinarritutako kontaketa hori gabe ezingo litzaioke hemen proposatzen den bide-urratzeari ekin. Gure xedea da orain arte gailendu den kontaketa historiografikoa osatzeari ekitea zentsuraren ikuspegi zabalago baten berraketa eta euskal literaturaren bilakabidea bere mugetatik abiatuta aztertuz.

2. Literatura, zentsura-ikasketak eta memoria-ikasketak

Euskal ikasketen baitan oso urriak izan dira orain gutxi arte zentsurari buruzko azterketak, bai maila orokorrean, bai literaturaren esparru espezifikolari dagokionez ere. Hala ere, Joan Mari Torrealdai gaiaren inguruan egindako ikerketa oparoari eskerrak, hutsunea ez da erabatekoa. Bereziki azpimarragarria da *Artaziak. Euskal liburua eta Francoren zentsura (1936-1983)* lana (Torrealdai, 2000), horrekin eman baitzituen ezagutzera euskaraz Francoren erregimen peko literatur zentsuraren nondik norakoak. Horretaz gainera, zentsuraren objektua aztertzeko garaian maila kontzeptualean detektatu zituen hainbat arazo eta hutsune ere oso argigarriak izan dira abiapuntu gisa zentsuraren ulermolde tradizionalaz haragoko ikuspegi osotuagoa eraikitzeko. Torrealdai euskal literaturaren esparruan egin-

dako azterketa Maria Josepa Gallofré eta Manuel Luis Abellán bide-urratzaile garaikide iberiarren lanen lerroan zegoen; beraz, gurean egindako ikerketen hastapenak bat egin zuen marko iberiarrarekin. Orduz geroztik, Torrealdairen lanak ez du gurean jarraipenik izan oso berriki arte eta, horiek horrela, bi puntutan laburbil daiteke euskal ikasketen esparruko zentsura-ikasketen egoera. Batetik, urritasuna dago, oso txikia baita ikerketen corpusa; bestalde, Francoren erregimen peko garaiko zentsura instituzionalaren monopolioa nabarmena da. Errealitate zientifiko horrek hainbat ondorio dauzka, baina lan honetarako gehien ardura zaiguna da zentsura zuzenean eta eskusiboki identifikatzea iraganeko garai konkretu batekin (Frankismoa), eremu geografiko jakin batekin (Hego Euskal Herria) eta erregimen totalitario bateko instituzioa jatorri duten debeku-neurri errepresiboekin.

Abellánek (1978, 1987) eta Jose Andrés de Blasek (1999) eremu hispaniarrean egindakoaren antzera, Torrealdaik ere azpimarratu zuen zentsuraren eraginaren alderdi kuantitatiboaz haragoko azterketen beharra, eta geroago, Ibon Uribarrik (2013, 43. or.) fenomeno zentsorearen konplexutasuna azpimarratu zuen, iradokiz forma instituzionalizatuan ez ezik, komunikazioaren kontrolerako instantzia informalean ere barreiatuta dagoela zentsura. Zentsuraren kontzeptualizazio zabal eta konplexuago hori 90eko hamarkadan hasi zen garatzen eremu anglosaxoian, postestrukturalismotik eta marxismotik edaten zuen *New Censorship Theory* ildo teoriko-kritikoaren baitan (Elizalde, 2018, 42-44. or.). Korrante teoriko honek zentsuraren izaera unibertuala azpimarratu zuen giza komunikazioaren osagai gisa eta, bestalde, haren alderdi ikusezinean nahiz produktiboan ezarri zuen fokua. Proposamena oso eztabaidatua izan zen, zentsuraren fenomeno banalizatzea egozten baitzitzaien, besteak beste, historiografiaren esparru akademikotik, bereziki¹. Hala ere, Nicole Moore (2013, 2015), Robert Darnton (2014) edo Matthiew Bunn (2015) eta beste hainbat ikerlariren lanetan irakur daitekeenez, gaur egun nekez egin daiteke zentsurarekiko ganorazko hurbilpen bat zabaltze teoriko hori kontuan hartu gabe. Are gehiago, uhin horrek eraginda ala ez, geroz eta ugariagoak dira eremu iberiarrean ere zentsuraren konplexutasuna ulertu ahal izateko hurbilpen zabala-goak eta askotarikoak proposatzen edo horien beharra azaltzen duten ikerlariak (Blas, 1999, 2007; Portolés, 2016; Gassol Bellet & Sopena, 2018). Euskal ikasketen eremuan Mari Jose Olaziregik zuzentzen duen Memoria Historikoa Literatura Iberiarretan (MHLI) ikerketa-taldeari zor zaio ikergaiak berriki izan duen bultzada. Ikuspegi berritzaile hau oso lagungarria izan daiteke, modernitate literarioaren mugak ulertzeko ez ezik, baita literaturaren historiografia osotuago bat eraikitzeko ere (Elizalde, 2018, 402-403. or.).

Zentsura-ikasketena ez bezala, literaturari lotutako memoria-ikasketen diziplina aski definituta dago, bai nazioarteko maila teoriko orokorrean, baita euskal eremuko jardun akademikoan ere. 90eko hamarkadako memoriaren *boom*arekin indartu zen arlo honetatik abiatu zen azterketa sistematikoa, eta ikerketa-lerroak berebiziko garapena izan du azken hamarkadetan. Aleida eta Jan Assmann (2008, 109-118. or.) izan dira diziplina honek nazioartean hartu duen formaren oinarri teorikoak zedarritu dituztenak, memoria indibidualaren, komunikatiboaren eta kulturalaren arteko banaketari dagokionez, besteak

¹ Zentsurari buruzko korrante teoriko berritzaileari buruz gehiago jakiteko, ik. Elizalde (2018, 41-49. or.).

beste. Lehen memorien barne-esparruarekin eta honen funtzionamendu neuro-mentalarekin lotzen da, bigarrena eremu informaleko transmisioaren esparru sozialarekin, eta hirugarrena esparru kulturalarekin. Elkarri eragiten dioten esparru horien bereizketa egitea garrantzitsua da gure arloari dagokionez, literatura eta memoria lotzen dituen eremua zein den zehazten baitu, boterearen eta instituzioaren eraginpean dagoen memoria kulturalarena, alegia (Assmann, 2008, 111-112. or.). Artea, historia eta erlijioa dira memoria kulturalaren baitako atal nagusiak (Assmann, 2008, 100. or.) eta, Astrid Erillek (2008, 7. or.) aipatu bezala, oroitzeko modu ezberdinak besterik ez dira, ez da elkarren arteko berezko harreman hierarkikorik. Abiapuntu horren arabera, azpimarratzekoa da literaturari (eta jakina, arteari, oro har) aitortza egiten zaiola oroimenerako subjektu den heinean, ez soilik memoriaren literaturaz ari garenean, orokorrean baizik; hau da, aitortu egiten zaio iraganeko testigantza-izaera eta balioa. Nazioartean garatzen ari zen marko teoriko-metodologikoaren oinarri horiek euskal ikasketetara (eta, zehazkiago, literaturaren esparrura) ekartzerakoan, bide-urratzaileak izan dira MHLI ikerketa-taldearen jarduna eta honen baitan Izaro Arroita (2015) idatzitako tesia.

Literaturaren esparruko zentsura- eta memoria-ikasketen panorama orokorraren hutsune nagusia bi horien arteko loturen gabezia datza. Oso urriak dira memoria-ikasketetan zentsuraz ari diren lanak, are urriagoak memoria eta zentsura uztartzen dituztenak, eta zer esanik ez testuinguru totalitarioez haragoko zentsura arakutzen dutenak. Assmannek (2008, 99. or.) memoria kulturalaz eta honen instituzioez ari dela, ahanztura aktiboaren mekanismo gisa sailkatuz aipatzen du zentsura, baina testuinguru totalitarioetara mugatzen du (Assmann, 2008, 105. or.). Beraz, memoria kulturalaren kanonaren eta artxiboaren eraikuntza selektiboa eta bazterketaren hatsarreen oinarritua dela aipatzen badu ere (Assmann, 2008, 106. or.), badirudi zentsuraren ulerkera tradizionalari eusten diola: erregimen totalitarioen debeku-instituzioak eta hauen errepresioekintza ezabatzaileak. Agerikoa da ikuspegi horrek ez duela aintzat hartzen gorago aipatu dugun nazioartean zabaldutako korrante zabaltzailea.

Jarraian azaltzen ahaleginduko garen bezala, ezinbestekoa da literaturak eraikitako memoria kulturalaren izaera azaldu ahal izateko zentsura mekanismoen konplexutasuna onartzea eta bere egingo duen oinarri teorikotik abiatzea. Gainera, ez da soilik beharrezkoa literaturaren barnean garatutako memoria kulturala aztertzeko, baita literatur sistemaren bilakaera ulertzeko ere. Horregatik, lehen egitekoa izango da euskal ikasketetan gailentzen den zentsuraren kontzeptualizazioa zabaltzea, betiere euskal literaturaren testuinguruko adibide eta beharretatik abiatuz.

3. Literatur zentsuraren memoria deseraikitzen eta osatzen euskal ikasketen baitan

Aurreko atalean aipatu bezala, literatur zentsurari buruzko ikerketak urriak dira gurean, Francoren erregimen peko garaiko zentsura instituzionalaren eraginari buruzkoak gehienak. Torrealdaik alderdi kualitatiboei erreparatzeko beharraz ohartarazi bazuen ere, ondoren ez da gaia gehiegi jorratu eta, hala, honako ezaugarriak dauzka euskal ikas-

keten eremuan eraiki den zentsuraren memoriak: Francoren erregimenaren iraupena du, Espainia barneko Euskal Herrian jazotzen da eta instituzioa jatorri duen debeku eragin ezabatzailea du soilik. Zentsuraren ikuspegi honek bat egiten du Assmannek ahanzturaren mekanismoen harira eskaintzen duen zentsuraren definizioarekin: ofizialki totalitarioa den gobernuak hartzen duen eremuko zentsura instituzionalaren debeku funtzio ezabatzailea. Euskal ikasketei dagokienez, iragan konkretu baten gainean eraiki den zentsuraren irudi honek arazo epistemologikoak planteatzen ditu, inplizituki baztertu egiten baitu zentsura-mekanismo ororen existentzia Francoren erregimenaren aurretik nahiz ondoren, bai eta Frankismo garaian Frantzia barneko Euskal Herrian nahiz erbestean halakorik jazotzen zenik ere. Horren harira, interesgarria da Catherine O’Learyk (2011, 4. or.) dioena botereak betidanik literaturarekiko izandako mesfidantzaz eta idazlearekiko zentsorearen beldurraz, azken honek irakurlearengan sor lezakeen aldaketarako grinagatik.

Botereak arte-sorkuntzarekiko izan dezakeen mesfidantza zentsuraren izaera unibertsalaren premisarekin lot genezake, botere-harremanek gobernatutako giza komunikazioaren elementu gisa. Jakina, zentsura ez da beti berdin azaleratzen, eta memoriak bezala, garaian-garaian eta tokian-tokian parametro ezberdinak dituzten eta elkarri eragiten dioten hiru alderdi ditu: indibiduala (auto-zentsura edo norberaren diskurtsoaren erregulazio-mekanismoak), komunikatiboa (eremu pribatuko komunikazioan gertatzen dena) eta kulturala.

Aurreko atalean azpimarratu bezala, Abellánek eta Blasek jadanik azpimarratu zuten 80ko eta 90eko hamarkadetan zentsuraren izaera unibertsala, bai eta auto-zentsura edo zentsura soziala moduko beste zentsuretan fokua ipini ere (Blas, 1999, 288-292. or.). Ildo horretatik eta psikoanaliaren teorizazioetatik edanaz, Blasek zentsuraren fenomeno orokorra definitzeko bidea irekitzen du, honen izaera diskurtsibo-ideologikotik eta errepresioarekiko ezberdintasunetik abiatuz, ondoren ikuspegi zabal hori frankismoko zentsurari aplikatzeko. Portolése (2016, 19. or.) pragmatikaren ikuspegitik egindako zentsuraren azterketan ematen duen definizioa da «interdicción ideológica jerarquizada», eta ideologia (Portolés, 2016, 45-50. or.) nahiz boterea (Portolés, 2016, 51-55. or.) ezartzen ditu zentsuraren oinarritzko ezaugarri gisa. Beraz, ikerlari honek ere instituzioaz harago jazotzen diren askotariko debeku-agente nahiz egoerak barnebiltzen ditu. Blasek egiten duen zentsura/errepresio bereizketaren arabera, errepresioaren egitekoa erabat ezabatzailea da eta aurretiazko zeregina du, debekatutako eremua marraztearena, alegia. Ondoren, zentsuraren lana izango da muga hori zaintzea, erreprimitutakoa azaleratu ez dadin (Blas, 1999, 284-285. or.); beraz, zentsuraren neurriak ez dira errepresiboak, dialogiko-diskurtsiboak baizik (Blas, 1999, 286. or.), eta aldizkako debekuez harago, autorizatzea du funtzio nagusi. Autorizatutakoaren funtzio bat da debekatutakoa solapatzea (Blas, 1999, 186-287. or.), errepresiorik gabeko ezabaketa.

Honek guztiak agerian uzten du zentsurak izaera diskurtsibo-ideologiko markatua duela, eta ezabatzea baino produzitzea duela helburu, betiere ezarritako zentsura-dialektikaren mugen baitan. Hala, pentsatzekoa da zentsura instituzionalaren lana dela botereak aurretiaz errepresioaren bitartez ezarritako zentsura-dialektikaren mugen baitako

produkzio kulturala sustatzea, norma edo kanon bilakatzea, eta kulturaren diluitzea hura osatzen duten gizabanakoetan barneratuta. Bada hori ilustratzeko adibiderik euskal literaturaren testuinguruan, ezagun baita Torrealdairen liburuan ere aipatzen den 36ko estatu-kolpearen aurretik hor zen Eliza katolikoaren eragin zentsorearen aurrekaria, Jon Casenavek (1997) aztertutako Jean Etchepareren *Buruchkaken* (Etchepare, 1980 [1910]) kasuan azaleratzen dena, besteak beste. Bada, idazle honek, inguruko presio sozialak bultzatuta, bere burua autozentsuratu egin zuen banaturiko aleak bueltan jasoaz, eta ondoren Piarres Lafittek gauzatu zuen esparru kulturalako zentsura, liburua bi atal argitaratu gabe utziz. Elizaren indar zentsore horrek iraun egin zuen frankismoan zehar, baita jendearengan berez zuen eragina indartu ere, hor baitzegoen aparatua instituzional berriaren mehatxua, irizpide zentsore berri nahiz zaharberrietuekin.

Txomin Peillenek (2005) azaldu ohi duen bezala, konplexua zen Francoren erregimen peko zentsura, ezberdina Espainia eta Frantzia aldeko euskal eremuetan, nahiz eta antzekoa zenbait alderdiri dagokienez, indar handiz eragiten zuen kristau-moralari lotuta bereziki. Elizaren indar zentsoreak horrenbesteko eragina bazuen, ez zen euskal idazleekiko errepresio-neurriak erabiltzen zituelako, euskal kulturaren zentsura-dialektika hertsia errotu zuelako baizik, hainbeste non euskaraz idatzi nahi zuenak zail izango zukeen (kanpo-eraginik eduki ezean) parametro horietatik at ezer imajinatzea ere, are gehiago imajinatutakoa argitaratzea, Elizaren instituzioa ez ezik inguru osoa eta norbere kontzientzia ere mugitzen baitziren kristau-moralak arbitratutako *ongiaren* eta *gaizkiaren* parametro zurrunetan. Horregatik, Elizalde (2018, 171-238. or.) Miranderen kasua aztertuz azaldu duen bezala, ez da ahaztu behar erbestean ere euskaldunak euskaldun zirela eta, modu ezberdinean bazen ere, Eliza katolikoaren zentsura-indarra hara ere iristen zela. Portolesek (2016, 55-57. or.) *zentsuraren periferia* gisa sailkatu du delazioarekiko beldurrez jazotzen den zentsura-giroa; izan ere, ez da kasualitatea bai Eliza katolikoak nahiz Francoren erregimen peko Espainiar Estatuak hurkoaren salatzea bultzatu eta saritu izana. Baina, instituzioen esku-hartze hori gabe ere, taldearen ideologiarekiko konpromiso gertatu ohi dira delazio-kasuak, kristau-morala babesteko, Francoren erregimena babesteko, eta abarrerako. Gainera, panorama orokor horri oztopo berriak erantsi zitzaizkion, ekonomikoak, besteak beste. Horrek guzti horrek, beste faktore askoren artean, zaildu zuen Miranderen obra argitaratzea, kutsu paganoko eta erotikoko testuei zegokienez, bereziki. *Aur besoetakoa* ipuin-berri edo *nouvellearen* kasuan, Frantzia aldeko euskal eremuan ez zen argitaratzen ahalegindu ere egin, eta *Egan* aldizkarian argitaratzen saiatu zenean, ezezkoa jaso zuen K. Mitxelenaren aldetik, honek aldizkaria ixteko arriskua ikusten baitzuen, eta azkenik, A. Ibiñagabeitiaren bitartez ere ezin izan zuen Guatemalan argitaratu. Zaila da zehaztea indar zentsorearen mehatxua nondik zetorren zehazki; izan ere, agintariak oztopo ziren, zalantzarik gabe, baina sarritan irakurleak eurak ziren kexatzen zirenak, edo banatzaileak zenbait testu banatzearen aldeko ez zirenak, edo idazleak eskandaluaren beldur zirenak, eta abar. Hau da, kultura baten garaian garaiko eta tokian tokiko zentsura-dialektikaren mugak literatur komunikazioaren kate-begi guztietan gorpuzten dira, eta horietako bakoitzak arrazoi ezberdinak ditu komunikazioan diskurtso hori eten eta beste hari eusteko, zentsura-dialektikaren mugak erreproduzitzen, gehienetan.

Orain arte ikusitakoaren arabera, gurean gailendu den zentsuraren ikuspegia iraganeko memorian oinarritutako eragiketa metonimikoaren fruitu da, Blasek (1999, 285. or.) eremu hispanikorako erabilitako hitza ekarriz. Antzeko zerbait atzematen da memoria kulturalaz ari dela (eta literaturaz, beraz) Assmannen diskurtsoan. Iraganeko garai jakin batean sistema totalitario batek ezarritako neurri bereziki errepresiboekin lotzen da zentsuraren fenomenoaren osotasuna eta, gainera, errepresio kasu agerikoenekin. Hala, *x* literatur lana zentsuratua izan zela diogu lan hori tatxatua edo debekatua izan zenean, kontuan hartu gabe literatur testu guztiak (frankismoaren lehen garaian, bereziki) zirela zentsuratuak, ez soilik *Ministerio de Información y Turismotik* (MIT) pasatzen zirelako, aipatu berri denez (eta disidentziak disidentzia), literatur komunikazioaren kate-begi guztiak izan zirelako aurretiazko errepresioak ezarritako mugek blaituak, baita Portolésekek aipatutako delazioarekiko beldurrak ere. Horrez gainera, Torrealdaik jadanik dokumentatu duen bezala, 1983. urtera arte iraun zuen MITen sistemak, eta hori aski da sistema totalitarioez harago zentsurarik badela iradokitzeo, garaian-garaian eta tokian-tokian forma ezberdina hartzen badu ere. Era berean, pentsatzekoa da jadanik botere jakin batek ezarritako zentsura-dialektikaren mugak barneratu dituen kulturaren, gailu errepresiboak ezinbesteko izateari uzten diotela eta soilik tarteka direla atzemangarriak.

4. Euskal literaturaren bilakaerari erreparatzeko ikuspegi zabalagoa: hiru bide-urratze

Aurreko atalean landutako zentsuraren kontzeptualizazioak ikuspuntu ezberdin bat eskaintzen du euskal literaturarekiko hurbilpena egiteko garaian. Izan ere, historiografia tradizionalak argitaratutakoei erreparatu ohi die literaturaren bilakabidea deskribatzeko unean, ez ordea argitaratu gabe geratu direnei, edo bazterrekoek harago kanonaren ifrentzu diren hutsuneei. Literatura jendartearen memoria kulturalaren parte da eta, beraz, instituzioaren esku-hartzea zuzena da eremu hori erregulatzerakoan. Horregatik, espero izatekoa da kultura jakin batean literaturaren bidez azaleratzen direnak zentsura-dialektikaren muga hertsien baitan mugitzea, instituzio kulturalak beregain hartzen dituen boterearen diskurtsoarekin bat eginez. Historiografia tradizionalak jasotzen dutena, beraz, zentsuraren funtzio autorizatzaileak baimendu eta sustatutako kultura da, garaian garaiko dialektikak eman duena. Euskal literaturan zentsura-dialektika zein parametrotan mugitu den aztertzeak, ordea, ageriko ez direnei erreparatzea dakar, ikusgarritasun txikiena izan ohi duten instantziak izan baitute maiz eragin handiena gure literatur sistema egituratzerako garaian. Hori behar bezala egiteko, euskal literatura bere konpartimendutik atera eta euskal kulturaren garaian garaiko zentsura-dialektikaren baitan kokatu beharra dago. Jarraian, adibide gisa, ikuspegi hau aplikatuko dugu euskal literaturaren hiru momentutan.

Euskal literaturaren historiografiak (Kortazar, 2003 [1990]; Olaziregi, 2002; Aldekoa, 2008, besteak beste) aho batez dio XIX. mendean eta 36ko estatu-kolpearen aurreko narraziogintzan ohiturazaletasuna gailendu zela eta literatura-mota horrek balio jakin batzuk transmititzea zuela helburu. Balio horiek, jakina, Eliza katolikoak sustatzen zuen

moral kristauarenak ziren, bai eta nazionalismoarenak nahiz monarkikoak ere, foruen aferari estu lotutako errealitatearekin bateginez. Garai hartako memoria kulturala literatura-mota horrek osatzen du, baita poesia erromantikoak ere, Euzko Pizkundea iritsi zen arte. Baina ez da sakontasunez azaldu ohi izan zer dela eta ez zen beste ezer argitaratzen, edo agian ez da behar beste azpimarratu sortu bai, sortzen zela, baina ahozkotasanaren eremuan, alegia, erabiltzen dituen bitartekoengatik memoria komunikatiboaren eremura mugatzen dena, nahiz eta forman eta xedean literatura izan. Jakina denez, ahozko mezua ez da materialki inon finkatzen eta, beraz, idatzizkoa baino efimeroagoa da, baina baita kontrolatzen zailagoa ere, hein batean, eremu pribatuan jazotzen bada, bereziki. Nolanahi dela ere, ideien transmisiorako arriskutsuen idatzizkoa izaki, zentzuzkoa da, alfabetatzea batere orokorturik ez zegoen garaian, zentsuraren lehen egitekoa kodearen irisgarritasunean zentratzea. Portolesek (2016, 145. or.) azpimarratzen duen bezala, «los censores también han podido procurar que parte de la sociedad permanezca analfabeta, es decir, que no pueda comunicarse ni leyendo ni escribiendo». Hau da, O'Learyk (2011) dioenaren ildotik, botereak, literaturaren beldur bada, literaturaren sortze eta hedapenerako tresnak tratatzea izango du helburu nagusienetariko bat. Hortaz, euskal testuinguruari dagokionez, idatzizko literaturan gerta ezin zirenak (umore *desegokia*, erotismoa, iseka, eta abar) ahozko literaturan jazotzen ziren. Alfabetatzearen nahiz moralaren transmisioaren kontrola eta, horri lotuta, ahozkotasanaren subertsio-esparrua kontuan hartuta eta sakonki aztertuta uler daiteke soilik XIX. mendeko eta honen aurreko nahiz ondoko euskal literatura idatziaren historia bere osotasunean.

Aipatu berri denaren antzeko zerbait gertatzen da Francoren erregimen peko euskal literaturaren garapenari erreparatzean. Jadanik azpimarratu da zentsuraz erai-ki den memoriak frankismo garaiko zentsurara mugatzen duela *zentsura* kontzeptuaz daukagun ikuspegi orokorra; gainera, nabarmendu dugu dagoeneko garai hartako literatur zentsuraren memoria ere osatu gabea dela eta MITetik zetozen debeku neurri ezabatzaileei erreparatzen diela soilik, alderdi produktiboa eta zentsuraren hedapena kontuan hartu gabe. Arestian aipatu bezala, MITEk ipinitako zehapenez haragoko zerbait izan zen zentsura frankismo garaian. Torrealdaik aipatzen du frankismoaren zentsuraren aurrekaria zela Elizarena, eta Koldo Izagirrek (2000, 8. or.) egiten dion hitzaurrean ere esaten du zentsorea zentsuratu bilakatu zela, euskal Elizari zegokio-nez. Alabaina, orokorrean ez da bi zentsura-instituzioen arteko elkarbizitza nolakoa zen ikertu, ezta horietako bakoitzak euskal geografia ezberdinetan zuen eraginaren norainokoa eta nolakotasuna ere. Horrekin batera, zentsuraren esparrutik at utzi da hezkuntzaren eremua, nahiz eta esan gabe doan edozein idatzizko literatur sistemaren oinarrizko pieza dela literatur hizkuntzan jazotzen den alfabetatzea. Iraganean Eliza izan bazen alfabetatzeaz arduratu zena, frankismoan Estatuak bereganatu zuen egiteko hori, eta kodearen transmisioaren kudeaketa bereganatu zuen, beraz. Nolanahi dela ere, esku-aldaketa ez zen erabatekoa izan, argigarria da zentzu honetan Rodrigo Echalecuk (2016, 35. or.) bere tesian dioena frankismoko lehen garaiko liburu politikaren harira: «[...] los medios socializadores de la Iglesia católica en el control de las costumbres y de la moral y en el adoctrinamiento de la sociedad a través de la política cultural y del aparato educativo, fue mucho más efectivo».

Euskal eremuan hartutako neurrien helburua ez zen izan euskal jendartea ez alfabetatzea, euskaraz ez alfabetatzea baizik, noiz eta berpizkunde abertzalea jazotzen ari zen garaian. MITen jardunak uneko produkzioan eragiten bazuen, hezkuntzaren eremuan kokatzen zen zentsuraren efektua epe luzerakoa izango zen, etorkizuneko euskal literatur sistema erabat baldintzatuz. Horiek horrela, ez da harrizkekoa Torrealdaik (1978, 107. or.) 1978an identifikatutako arazoa, euskaraz alfabetatutako demografiaren urritasuna nahiz horren eboluzio eza zirela eta, liburuaren etorkizunaz kezkatuta. Hala, ezinbestekoa da frankismo garaiko zentsuraren alderdi horri ere erreparatzea ez soilik garaiko, ezpada ondoko euskal literaturaren bilakaera ulertzeko.

Zentsuraren ikuspegi berritik abiatuz urra litezkeen bideekin amaitzeko, eta gaur egungo euskal literaturari erreparatuz, euskal gatazkaren tratamenduari zentsuraren ikuspegitik begiratzea proposatzen dugu. Olaziregik eta Mikel Ayerbek (2016) azaltzen dutenez, izan dira euskal literaturan gatazkaren lanketaren urritasunaren nahiz egokitasunaren inguruko eztabaidak, baina Olaziregik (2017, 11-12. or.) agerian uzten du 90eko hamarkadan gatazkaren inguruko euskal eleberrigintzaren eztanda jazo zela, eta garaian ia 70 eleberriz zenbatu bazituen, 2017tik hona argitaratutakoekin zifra hori jadanik gaintitu ez bada, gutxi faltako da horretarako. Aho batez baieztatu dezakegu ugariak direla euskal literaturan gatazkaren nondik norakoak aztertzen eta irudikatzen dituzten narraziozko literatur lanak, eleberriez gainera asko izan baitira gaia narrazio laburragoen bidez jorratu duten idazleak, Ayerbek (2012) apailatutako *Our wars: short fiction on Basque conflicts* antologiak agerian uzten duenez. Zaila da, ordea, *euskal gatazkaz* ari garela, zer esan nahi dugun zehaztea, Olaziregik (2017, 8-9. or.) aipatzen duen bezala, ez baita kontzeptu kontsentsuatu bat, baina euskal jendartearen bilakabidearen ulermolde jakin batetik heldu den orainarekiko posizionamendu bat dela esan genezake. Euskal gatazkaren kontaketa ez da Euskadi Ta Askatasunaren jardunaren denbora-epera mugatzen eta barnebiltzen ditu 36ko Estatu Kolpeak sortutako gerla edo Foruen nahiz Nafarroako Erreinuaren galera moduko gertakari historikoak, horiek historian zehar euskal jendartearentzat ekarritako ondorioak barne. Hau da, euskal gatazkarena ibilbide historiografiko politiko-armatu baten kontaketa da, ezker abertzaleak bereziki (baina ez soilik) bere egin ohi duena.

ETA erakundearen jardun armatua aktibo zegoen garaian ezker abertzalearen ilegalizazioa ez ezik, horren ideologiarekin bat egiten zuten adierazpen diskurtsibo publikoak ere ezabatzeko ahalmen judiziala garatu zuen Espainiako Zuzenbide Estatuak. 1998an Koordinadora Abertzale Sozialista ilegalizatzearekin batera *Egin* eta *Egin Irratia* itxiarazi ziren, baita gerora *Egunkaria* ere, 2003ko Batasunaren ilegalizazioarekin bat eginez. Artearen esparruan ere jazo ziren ezabaketak, Alejandro Tapiaren (1931-2016) *Usurbilgo Alaitsu eta borrokan kementsu* muralaren edo Txema Kaleroren Hernaniko eskulturaren kasuek aditzera ematen dutenez (Elizalde & Manterola, 2019), adibide batzuk ematearren. 2009ra arte amaitu ez zen *macrosumario 18/98* gisa ezagun denak sustatutako *Todo es ETA* lelopean Espainiako marko legalak asko murriztu zuen *euskal gatazkaren* ikusmoldeak eremu publikoan zeukan enuntziatio-esparrua. Horrekin batera, oraina azalduko lukeen iraganaren interpretazio hori gaitzetsia izan da historiografia instituzional hegemonikoaren eremuan, eta Olaziregik (2017) aipatzen duen bezala, zentsura edo tabuizazio gisako batean jausi da *euskal gatazka* terminoa. Erik Zubiagaren (2017,

363. or.) hitzetatik abiatuz, memoriaren korronteari lotuta egotea egozten zaio *euskal gatazkaren* azalpen historiografikoari, horrek deslegitimatuko balu bezala.

Zubiagak aipatzen dituen hainbat historialarik partekatzen duten posizionamendu hori ideologia jakin baten parte da, eta Estatuaren marko legalak ideologia horren aldeko zentsura-neurri errepresiboak ezarri ditu iragan hurbilean, hainbat komunikabide eta mezu-mota debekatu. Hala, marko honen baitan ulertu beharko litzateke *euskal gatazkaren* planteamenduak izan duen presentzia nabarmena euskal literatura den bazterreko txokoan, oso berriki arte inolako legitimitaterik gabekoa historiografiaren diziplinarekin alderatuta. Alabaina, memoria-ikasketen baitan, historiaren parean kokatzen da literatura (arte, oro har), memoria kulturalaren esparruko kideak izanik biak. Olaziregik (2017, 13. or.) azpimarratu bezala, orain arteko euskal nobela gehienetan *biktimariotzat* hartzen denaren ikuspegia agertzen da narrazioan, honen barne-muinak aztertuz, Joseba Zulaikak eta William Douglasssek (1996) esandakoen ildotik, terrorismoa askatuz bere elementu fetitxisten eta erritualizatuen tabuizaziotik. Hala, badirudi euskal literaturan ageri den *euskal gatazkaren* ikuspegia erresistentzian ari dela Espainiako Estatuak (mekanismo zentsore autorizatzaile nahiz ezabatzaile askotarikoen bidez) sustatu nahi duen ideologia eta errealitatearekiko. Joera ideologiko horrek marko legalean topatu dituen oztopoak eta eremu historiografiko akademiko hegemonikotik jaso duen etengabeko deslegitimazioak zer pentsatua ematen dute euskal literatura (eta, beraz, fikzioa) ideologia horren esparru kutunenatarikoa edo bakarrenatarikoa ote den, komunikazio eta memoria kulturalaren esparruari dagokionez. Olaziregik (2017, 7. or.) dioen bezala, «mucho se ha escrito sobre el papel que la literatura puede jugar en un contexto político conflictivo, sobre su poder de aportar matices, para quebrar tabúes y revelar tonalidades grises», baina euskal literaturak, funtzio horiek ez ezik, oinarritzkoagoa den bat ere betetzen du, testuinguru zentsorearen murrizketak direla medio: gaiari buruz termino horietan (grisetan) komunikatzeko esparru publikoa eskaintzea.

5. Ondorioak

90eko hamarkadatik goiti nazioartean jazo den zentsuraren ikasketen bizkortzea berriki heldu da testuinguru iberiarra. Euskal ikasketen testuinguruan ere badugu Torrealdairen aurrekaria ildo horretan. Francoren erregimen pean jazotako euskal liburuen zentsura aztertu duen aditu berak berriki *Asedio al euskera. Más allá del libro negro* (2019) eta *De la hoguera al lápiz rojo* (2019) liburuak argitaratu ditu, Frantziako Iraultzatik gaurdainoko ikuspegi historiko batetik aztertzen dituen Espainiako nahiz Frantziako Estatuaren aldetik bultzatutako euskararekiko iritzi nahiz legedia kaltegarriak. Bada, artikulua honetan defendatutakotik ondorioztatzen da Torrealdairen planteamendu osoa marko berean sartzen dela; garaian garaiko botereak neurri ezberdinak ezarri ditu euskal kultura menperatu eta kontrolpean izateko eta, beraz, zentsura ez da bere burua totalitario gisa aitortzen duen Estatu baten aparatu instituzioanalaren debeku-neurriekin agortzen.

Euskal literatura idatziaren bilakabideari eta horrek emandako memoria kulturalari erreparatzeko orduan, ezinbestekoa zaigu garaian-garaian euskararekiko nahiz euskal

kulturarekiko ezarritako zentsura-dialektikei erreparatzea, bai eta aztertzea ere nola eta zein heinetan barneratu dituzten muga horiek literatur komunikazioaren kate-begi ezberdinek. Beharkizun hau azaltzen ahalegindu gara euskal literaturaren kasuan, baina, jakina, planteamendu hau baliagarria da munduko edozein literaturari dagokionez, botereak beti ezarri ohi baitizkio mugak literatura idatziari. Dena den euskal literaturaren testuinguruan gertakari honen konfigurazioa kultura eta kultur hizkuntza subordinatu batena da, eta ez dira soilik literaturaren edukiak debekatu hauek ezabatuz edo beste batzuk sustatuz, baita kodearen transmisioa bera ere, hasieran alfabetatzea ukatuz eta, beranduago, euskarazko alfabetatzea. Gainera, botereari lotuta egon ohi da kodearen transmisioaren ahalmena, eta hala, kodearekin batera bere ideologia eta zentsura-dialektika ere transmititu ohi ditu. Beharrezkoa zaigu azken horiei erreparatzea euskal literaturak izan duen bilakabidea behar bezala ulertu ahal izateko. Hain zuzen ere, azken bi faktore horiek hartu ditugu batez ere kontuan zentsuraren ikuspegi zabaltzailea aplikatuz irekitako lehen bi bideetan, eta azpimarratu nahi izan dugu orain arteko historiografiak argitaratutakoak bildu baditu, beharrezkoa dela corpus historiografiko hori agerikoak ez direnekin osatzea, ahozkoaren eremuan edo idatzizkoaren periferian geratu ohi direnekin, alegia. Aldiz, urratutako azken bideak lotura estuagoa du literatura garaikidearekin, eta horren baitan jazotzen ari den *euskal gatazkari* buruzko literatura mordoarekin. Literatura, memoria kulturalaren parte izanik, memoria historikorako eremu bihurtu da euskal literaturan, beste edozein literaturatan gertatzen den moduan: gurea ez da salbuespena. Gure kasuaren berezitasuna zera da; literatura badela salbuespen, esparru *publiko* baimendu bakarretarikoa den aldetik memoria hurbilaz matizatuz eta ikuspegi hegemonikoak zalantzan ipiniz idazteko, kritika egiteko eta horrek emandakoak argitaratzeko. Errealitate hori ulertzeko, berriz ere, gaurko zentsura-dialektika zer-nolakoa den eta nondik heldu zaigun aztertu beharko genuke, memoria kulturalaren eremuei eta politika instituzionalei erreparatuz, besteak beste: kulturari lotutako gobernu-instituzioak, komunikabideak, eskola, unibertsitatea, museoak eta abar.

Erreferentziak

- Abellán, M. L. (1978). Censura y práctica censoria. *Sistema*, 22, 29-52.
- Abellán, M. L. (1987). Fenómeno censorio y represión literaria. *Censura y literaturas peninsulares. Diálogos Hispánicos de Amsterdam*, 5, 5-26.
- Aldekoa, I. (2008). *Euskal literaturaren historia*. Donostia: Erein.
- Arroita, I. (2015). *Ramon Saizarbitoriaren nobelagintza memoria-ikasketen ikuspegi-tik* (doktore-tesia). UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz. <https://addi.ehu.es/handle/10810/15964?locale-attribute=eu> helbidetik eskuratua.
- Assmann, A. (2008). Canon and Archive. In A. Erll & A. Nünning (arg.), *Media and cultural memory* (87-107. or.). Berlin-New York: Walter de Gruyter.
- Assmann, J. (2008). Communicative and Cultural Memory. In A. Erll & A. Nünning (arg.), *Media and cultural memory* (109-118. or.). Berlin-New York: Walter de Gruyter.

- Ayerbe, M. (2012). *Our wars: short fiction on Basque conflicts*. Donostia: Etxepare Euskal Institutua.
- Blas, A. de (1999). El libro y la censura durante el franquismo: Un estado de la cuestión y otras consideraciones. *Espacio, Tiempo y Forma (Historia Contemporánea)*, 12, 281-301.
- Blas, A. de (2007). Censura y represión. *Represura*, 3. http://www.represura.es/represura_3_mayo_2007_articulo7.pdf helbidetik eskuratua.
- Bunn, M. (2015). Reimagining repression: new censorship theory and after. *History and Theory*, 54, 25-44.
- Casenave, J. (1997). *De l'article de presse a l'essai litteraire : «Buruchkak» (1910) de Jean Etchepare* (dokto-re-tesia). Université Michel de Montaigne-Bordeaux III, Bordele.
- Elizalde, A. (2018). *Jon Miranderen Haur besoetakoa (1970), modernitate ukatua*. (dokto-re-tesia). UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz. <https://addi.ehu.es/handle/10810/32629> helbidetik eskuratua.
- Elizalde, A. & Manterola, I. (2019). «Pakean Utzi Arte»: *Arts and resistance in Basque subaltern memories*. Bangor: Bangor University Press.
- Erl, A. (2008). Cultural memory studies: An introduction. In A. Erl & A. Nünning (arg.), *Media and cultural memory* (1-15. or.). Berlin: Walter de Gruyter.
- Etchepare, J. (1980 [1910]). *Buruxkak*. Baiona: Elkar.
- Darnton, R. (2014). *Censores trabajando. De cómo los Estados dieron forma a la literatura* (Itzulpena: Mariana Ortega). Mexiko: Fondo Económico de Cultura. (2014an ingelesez argitaratua).
- Gassol Bellet, O. & Sopena, M. (2018). La cultura catalana, asediada. Un balance crítico de los estudios sobre la censura franquista. *Represura [Nueva época]*, 3, 95-138. http://www.represura.es/represura_3_nueva_epoca_2018.pdf helbidetik eskuratua.
- Izagirre, K. (2000). Ezin izanaren teoria baterako. In *Artaziak. Euskal liburuak eta Francoren zentsura 1936-1983* (7-12. or.). Zarautz: Susa.
- Kortazar, J. (2003 [1990]). *Euskal Literatura xx. mendean*. Zaragoza: Prames.
- Moore, N. (2013). Censorship is. *Australian Humanities Review*, 54, 45-65.
- Moore, N. (2015). *Censorship and the limits of the literary. A global view*. New York-Londres: Bloomsbury Publishing Inc.
- Olaziregi, M. J. (2002). *Euskal eleberriaren historia*. Bilbo: Labayru Ikastegia-Amorebieta-Etxanoko Udala.
- Olaziregi, M. J. (2017). Literatura vasca y conflicto político. *Diabolotexto Digital*, 2, 6-29.
- Olaziregi, M. J. & Ayerbe, M. (2016). El conflicto de la escritura y la rescritura de la identidad: análisis de la narrativa de escritoras vascas que abordan el conflicto vasco. In K. Moszczyńska-Dürst, K. Kumor, A. Garrido & A. Calderón (arg.), *Identidad, género y nuevas subjetividades en las literaturas hispánicas* (45-66. or.). Varsovia: Varsoviako Unibertsitatea-Instituto de Estudios Ibéricos.

- O’Leary, C. (2012). Introduction. In A. Lázaro & C. O’Leary (arg.), *Censorship across borders: the reception of English literature in twentieth-century Europe* (1-24. or.). Cambridge: Cambridge Scholars Publishing.
- Peillen, Tx. (2005). Euskal idazle izatea 1950-1960 urteetako hamarkadan (Hauskura belaunaldia). In U. Apalategi (arg.), *Belaunaldi literarioak auzitan* (119-147. or.). Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Portolés, J. (2016). *La censura de la palabra. Estudio de pragmática y análisis del discurso*. Valentzia: Universitat de València.
- Rodrigo Echalecu, A. M. (2016). *La política del libro durante el primer franquismo* (doktorego-tesia). Madrileko Complutense Unibertsitatea, Madril.
- Torrealdai, J. M. (1978). Euskal liburugintza 1977.ean. *Jakin*, 5, 103-122.
- Torrealdai, J. M. (2000). *Artaziak. Euskal liburuak eta Francoren zentsura 1936-1983*. Zarautz: Susa.
- Torrealdai, J. M. (2018). *Asedio al euskera*. Donostia: Txertoa.
- Torrealdai, J. M. (2019). *De la hoguera al lápiz rojo*. Donostia: Txertoa.
- Uribarri, I. (2013). Censura(s) en la traducción al/del vasco. *Quaderns: Revista de traducción*, 20, 31-45.
- Zubiaga, E. (2017). La represión franquista de guerra y posguerra en el País Vasco a debate: entre el exterminio y el oasis. *Historia y Política*, 37, 357-384.
- Zulaika, J. & Douglass, W. A. (1996). *Terror and taboo*. New York-Londres: Routledge.

Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten
behinbehineko emaitzak
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko
pilota-elkarte batean
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:
testimonios del Archivo Zavala
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren
didaktikan
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa
eraikitzen
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasunaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble
denominación
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia
del Euskara
JOAQUÍN GORROCHATAGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización
lingüística
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko
muga lausoa
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: berrikuntza didaktikoa eta soziala?
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation: the case of the Basque particle *ote*
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen ikas-irakaskuntzaren adibidea
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketez
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun: egiletasuna eta iturriak
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak
LUIS MARI ZALDUA

Izenburua/Título:

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

© Argitaratzaileak/Editores:

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

© Egileak/Autores:

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

© Argitaratzailea/Edita:

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:

Kö estudio

Imprimaketa/Impresión:

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketan zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se reúnen en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613